



ARTEA ETA OSPITALEAK 2022

OINARRI ARAUTZAILEAK:

Deialdiaren datuak:

Nafarroako Gazteriaren Institutuak (NGI), Osasun Departamentuarekin lankidetzan, lehiaketa baterako deia egin du, Nafarroako Ospitale Unibertsitarioan (NOU, Nafarroako Ospitalegune Zaharra) esku-hartze artistiko iraunkorra garatzeko.

Proiektua NOUko psikiatria-pabiloian egingen da aurten, eta horma-gune batean gauzatuko da (3.10 m garai x 58,60 m luze, gutxi gorabehera). (Ikus i. eranskina)

Proiektu hori ospitalearen baldintzetara eta testuingurura egokituko da, eta horretarako behar diren estrategiak erabiliko dira.

Ekintza honen bidez, espazio askatzaile, gizatiar eta atsegina sortu nahi da, espazio konpartitzen duten pertsona guztientzat: profesionalak, pazienteak, ahaideak, lagunak.

Horrela, artearen bidez prozesu emozional pertsonalekin konektatzeko espazio bat prestatzen da eta artista gazteek espazio publikoetan parte hartzea sustatzen da.

1.- Norentzat den

Deialdia Nafarroako artistei zuzenduta dago, edo Nafarroan gutxienez 6 hilabeteko antzintasuna dutenei, baldin eta oinarri hauek argitaratzen diren unean 18 eta 30 urte bitartekoak badira. **Bakarka nahiz taldeka aurkez daitezke deialdira.**

2.-Eskaerak aurkezteko epea eta tokia

Interesdunek proposamenak aurkeztu beharko dituzte encuentros@navarra.es helbidera email bat igorrita edo Nafarroako Gazteriaren Institutuko Erregistroan, eskabidea betez (Yanguas eta Miranda k., 27, behea -31003 Iruña) edo Nafarroako Gobernuaren edozein erregistro-bulegotan edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezarritako lekuetan (16. artikulua).

Dokumentazio osagarria eskatzen ahalko da.

Proiektuak **2022ko otsailaren 18tik martxoaren 20ra bitartean** aurkezten ahalko dira.

Hautatutako proiektua zein den **martxoaren 25ean jakinaraziko** da.

Proiektua martxoaren 28tik apirilaren 18ra bitarte tutorizatu eta egingen da, eta apirilaren bukaera aldera aurkeztuko da jendaurrean.

3.-Proiektuak aurkeztea

- Izena emateko formularioa eta erantzukizunpeko adierazpena (II. eranskinaren arabera)
- NANaren / AIZren fotokopia
- Curriculum artistikoa, aurkezten duten pertsonen ibilbidearekin.
- Esku hartzeko proposamena jasotzen duen dosierra (pdf formatuan, dokumentu bakar batean, ondoko izenarekin: - NOMBRE_APELLIDO_HOSPITAL.pdf Txostenak 15 orri izanen ditu, gehienez.

Esku-hartze proposamenean sartu behar da:

- Hasierako asmoa, landu nahi d(ir)en kontzeptu(ar)en gaineko azalpena.
- Testuinguruarekin lotzeko aurreikusten diren estrategiak.
- Erabili beharreko material eta tekniken aurrerakin bat, baita irudiak, zirriborroak eta proiektua hobeki ulertzeko lagungarri izan daitezkeen bertzelako alderdiak ere.
- Ekoizpen gastuetarako aitzinago zehazten diren baldintzen arabera aurrekontuaren aurkezpena. **Guztira ez da 4.650€ baino gehiago izanen (BEZa barne); diru kopuru hori erabiliko da artelanaren ekoizpenerako eta ordainsarirako**, proiektu osoa buka dadin.

4.- Epaimahaia eta hautaketa

Epaimahaia honako hauek osatuko dute:

- **Carlos Amatrian Busto**, epaimahaiburua, NGIren zuzendari kudeatzailea.
- **Nerea de Diego**, Uharteko Arte Garaikidearen Zentroko Ikusizko Arteen zuzendaria.
- **Manuel Jesús Cuesta Zorita**, Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko Psikiatria Zerbitzuko burua.
- **Asunción Rey Escalera**, Herritarren eta Erien Arretarako Zerbitzuko Administrazio Zerbitzuko burua.
- **Aniana Alfaro Nicolás**, epaimahaiko idazkaria, hitz egiteko eskubidearekin baina botorik gabe, NGIko Parte-hartzearen eta Sormenaren Bulegoburua

Epaimahaikideek parte-hartzaileen proiektuak ebaluatuko dituzte, eta erabakia gehiengoz hartuko.

Epaimahaiaren eraketa baliozkoa izateko, beharrezkoa izanen da elkartzea mahaiburua eta idazkaria, edo haien ordezkioak, eta gutxienez ere mahaikideen erdiak.

Epaimahaiaren eginkizunak eta proiektuaren hautapena.

Epaimahaikideek parte-hartzaileen proiektuak ebaluatuko dituzte, eta erabakia gehiengoz hartuko. Hauek izanen dira balorazioaren oinarriak: proiektuaren kalitate artistikoa, horrek dakarren ikerketa- eta esperimintazio-proposamena, eta aurkeztutako proiektuak deialdiaren xedearekin duen lotura.

Era berean, onartu ez diren lanak baztertzeko proposamen arrazoitua baloratuko du, honako arrazoi hauengatik: epez kanpo edo oinarri hauetan ezarritakora egokitu gabe entregatzea, proposamenak behar bezala baloratzeko dokumentazio nahikorik ez izatea edo kalitate artistiko eskasa izatea, aurreikusitako helburuekiko bideraezina edo desegokia delako.

Epaimahaiaren erabakia apelaezina izanen da eta gehiengoz emanen du bere epaia; berdinketa gertatuz gero mahaiburuaren kalitatezko botoak erabakiko du. Lehiaketa ebazten duen erabakia arrazoitu egin beharko da, eta behin betiko ebazpen-proposamena egin.

Epaimahaiak lehiaketa eman gabe uzten ahalko du, uste badu aurkezturiko proiektu bakar batek ere ez dituela ezarritako xedeak betetzen.

5.- Proiektu hautatua eta haren garapena:

Hautatzen d(ir)en pertsona/ek 7 eguneko epea izanen du(te), jakinarazpena eta biharamunetik aitzina, mandatua eta baldintzak onartzeko.

Nafarroako Gazteriaren Institutuak eta Osasun Departamentuak jarraipena eginen diote proiektu irabazlearen garapenari, oinarrietan ezarritakoari egokitu dakion.

Hautatutako proiektuaren garapena Uharte Zentroko taldeak tutorizatuko du. Hautatutako proiektuaren egilea/ek martxoaren 28tik apirilaren 20ra bitartean bere(n) esku izanen ditu(zte) Uharte Zentroko langileen laguntza, espazioa eta ekipamenduak,

Ospitalean lanak hasi aurretik.

Proiektua jendaurrean aurkeztea aurreikusita dago 2022ko apirilaren amaieratik maiatzaren hasierara bitartean, NOU eremuan.

6.–Proiektuaren finantzabidea:

Nafarroako Gazteria Institutuak 3.500 €-ko gehieneko gastua jarriko du (BEZa barne), eta Eriari Osasun Laguntza emateko Zuzendaritzak 2.950 €-ko gastua (BEZa barne) egingen du, “Artea eta Ospitaleak 2022” izeneko proiektua gauzatzeko, tutoretza egiteko eta jarraipena egiteko.

7.- Obraren jabetza

Nafarroako Gobernua bilakatuko da hautatzen den proiektuaren jabe, maketak eta dokumentazioa barne, eta, hartara, obra erreproduzitzen ahalko du bidezko iruditzen zaizkion baliabideak erabiliz, haren zabalkuntza egiteko lehiaketaren hedapenak berezko dituen ondorioetarako.

Egileak erantzun beharko du Nafarroako Gobernuaren aitzinean, aurkezten diren proiektuen egiletzaren eta originaltasunaren gainean. Administrazio kontratatzailearen iduriko, parte-hartzailearenak dira irudi eta egile eskubideak; beraz, salbuetsirik geldituko da egileak beharkizun horiek ez betetzeagatik hirugarrenek egiten ahal dituzten ekintza, erreklamazio edo gatazken ondorioz etor litezkeen erantzukizun guztietatik.

Behin obrak burututa, Nafarroako Gobernuaren ondare bilakatuko dira, haien egileen jabetza intelektual eta artistikoetarako eskubideak alde batera utzita.

Osasun Departamentuak artelana kentzen edo birkokatzen ahalko du, tenorea etorrita.

Egileak izanen dira hautatzen ez diren proposamenen jabe.

Nafarroako Gazteriaren Institutuak behar bezala jakinaraziko die hautatuak izan ez diren proposamenetako parte-hartzaileei hala izan direla.

8-. Datuen babesa

Datuak Babesteko Lege Organikoaren 11. artikuluan eta Datuak Babesteko Erregelamenduaren 13. artikuluan ezarritakoarekin bat, honako hau jakinarazten zaie lizitatzailerei:

- Proiektuen Lehiaketan parte hartzeko eman dituzun datuak fitxategi batean sartuko dira, Nafarroako Gazteriaren Institutuaren tratamendurako, helburu honekin: zure parte-hartzea lizitazioan kudeatzea, eta erraztea komunikazioak eta informazio-trukeak dinamikarekin lotutako eskumenak eta egitekoak dituzten pertsonen eta erakunde guztiekin.

–Nafarroako Gobernuko Datuak Babesteko Ordezkaritzaren bidez jar zaitezke harremanetan Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako datuak babesteko ordezkaritza unitatearekin, zeina Lehendakaritzako eta Gobernu Irekiko Zuzendaritza Nagusiari atxikia baitago;

- Datu pertsonalak jakinaraztea legezko baldintza da proiektuen lehiaketaren lizitazioan onartua izateko; hala ez bada, kanpo geldituko zara.

Tratatzeko bildu diren datu pertsonalei dagokionez, eskubidea duzu datuetan sartzeko, haiek zuzentzeko, deuseztatzeko, tratamendua mugatzeko, kontra egiteko eta datuak eramateko. Horretarako, idatzizko eskaera igorri behar zaio datuak tratatzeko arduradunari, arestian esandako helbidera, araudi indardunak ezarritako moduan.

- Proiektuen lehiaketaren adjudikazioa exekutiboa izan arte gordeko dira datuak, eta, irabazle izanez gero, gauzatutako proiektua jaso arte, betiere ez badago ebatzi beharreko errekurtso edo auzirik, eta, behar denean, indarreko araudi administratiboak eskatzen duen arte.

- Datuak babesteari dagokionez, eskubidea duzu erreklamazioa egiteko Datuak Babesteko Agentzian.


Informazioa eta oinarriak

<https://www.juventudnavarra.es/eu/2022ko-arte-eta-ospitaleak>

NGI, Yanguas y Miranda k., 27. zk., behea Tel.: 848-427841 eta 848-423900.

Intereseko helbide elektronikoa: encuentros@navarra.es

I. ERANSKINA



3,10 m altu
58,60 m luzu

II. ERANSKINA

FORMULARIO DE INSCRIPCIÓN / IZEN-EMATE ORRIA

Pamplona, de de 2022
Iruñean, 2022.....(e)koaren(e)an

-Datos personales/ Datu pertsonalak:

Primer apellido/lehenengo abizena:

Segundo apellido/bigarren abizena:

Nombre/Izena: D.N.I/NAN:

Fecha nacimiento/Jaiotze data: Lugar/Lekua:

Domicilio/Helbidea:

Población/Herria: C.P/PK:

Provincia/Probintzia: Teléfono/Telefonoa:

E-mail/E-maila:

DECLARACIÓN RESPONSABLE / ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPEN

Asimismo, declaro:

Estar capacitado/a para contratar con la Administración, tener capacidad plena de obrar y acreditar solvencia técnica y profesional, y no encontrarme incurso/a en las causas de prohibición de contratar previstas en el artículo 22 de la Ley Foral de Contratos Públicos.

Halaber, honako hau adierazten dut:

Gaitasuna dudala Administrazioarekin kontratatzeko, are gaitasun osoa ere obratzeko, kaudimen tekniko eta profesionala egiaztatzen dudala, eta ez dudala Kontratu Publikoei buruzko Foru Legearen 22. artikuluan kontratatzea debekatzeko aipatzen diren arrazoiatarik bat ere..

Firma / Sinadura